

SUSANNA ISERN

BENEDETTA SALA



KAPIREN BILA

Kapibara familiak bidaia bati ekiten dio euren senideak bisitatzeko.

Berehala, Kapi txikia distraitu egiten da tximeleta handi bati jarraika, eta galdu egiten da.

Kapibara Amak, Aitak, aitonak eta Kokok sorpresa bat baino gehiago ekarriko dizkien bilaketan lagunduko dute.



KAPIREN BILA

SUSANNA ISERN

BENEDETTA SALA

nubeOCHO





Kapiren bila

Somos8 Bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2026

© irudiena: Benedetta Sala, 2026

© argitalpenarena: NubeOcho, 2026

© itzulpenarena: Beñat Muxika, 2026

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *En busca de Capi*

Lehen argitalpena: Apirila, 2026

ISBN: 979-13-88132-12-4


Gordailu Legala: M-6659-2026

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debeztatuta argitalpen honen kopiaketa.

KAPIREN BILA

Susanna Isern Benedetta Sala



Kapibara familia plisti-plasta dabil zingira handian. Ama eta Aita uretan murgildu dira, aitonak lo-kuluxka egin bitartean.

Kapi denetan txikiena eta bihurriena da. Tarteka bere neba nagusia, Koko, zirikatzen du, bere adar gogokoenak ezkutatuz.



Goiz batez, hala esaten die Kapibara Amak:
—Gaur mendiz bestaldean dagoen zingirara
joango gara, lehengusuak bisitatzer.



Koko eta Kapi pozez jautzika jarri dira
eta bidaiarako gauzak prestatzen hasi dira.



Mendiz bestaldera iristeko bidea luzea da eta Kapibara Aitak abisua eman die txikiei:

—Ilaran joango gara eta ez gara elkarrengandik bananduko. Gutakoren bat galtzen bada, onena ez mugitzea eta dagoen lekuan egotea izango du.





Kapibara familiak bidaiari ekiten dio.
Kapi mantsoago dabil eta azkena doa.

Bere zingiratik ateratzen den lehen aldia da eta
denak erakartzen du bere arreta. Harri bila, loreei
begira eta urtxintxeekin hizketan entretenitzen da.

Bat-batean, Kapiri sekula ikusi duen tximeletarik handiena gurutzatzen zaio bidean. Kapibara txikia liluratuta dago. Asko pentsatu gabe, bere atzetik korrika abiatu da.



Bada denbora, Kokok, neba nagusiak,
atzetik Kapi korrika entzuten ez duela.
Orduan, buelta eman eta...



Kapi?



Kapi?



—Ama, ez dut Kapi ikusten!
—Nola ez duzula ikusten?



Denak oso urduri daude.

—Bera bilatzeko banandu egingo gara
eta geroxeago hemen bertan elkartuko
gara —esaten du aitonak.

